



HITZEKIN ERE JOLAS EGIN DAITEKEELAKO

Bertsotxongiloek 'Hitzen Lapurra' emanaldia eskainiko dute Anoetan hilaren 29an; ondoren Ibarrara joango dira >5

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-03-11**

VIII. URTEA 1949. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Lehen zerrategia zegoen lekuan, Zizurkilen, etxebizitzak eraikitzen ari dira. E.MAIZ

UDALAK ETXEBIZITZA «BEHAR HANDIARI» ERANTZUN NAHI DIO

ZIZURKIL Asteasuko bidearen ondoan, lehen zerrategia zegoen lekuan, hainbat etxebizitza eraikitzeko lanek aurrera jarraitzen dute 4

LAB sindikatuak lan istripuz hildako azken langilearen heriotza salatu du Alegian

ELKARRETARATZEA Herriko plazan 40 lagun inguru elkartu ziren atzo; «prekarietateak hil egiten duela» salatu zuen sindikatu abertzaleak 7

Alegian eta Leitzan jokatuko dira final laurdenak

BERRIA TXAPELKETA Aurrera-Saiazek eta Zazpi Itturrik elkarren aurka jokatuko dute bihar 6



Hiru ikastetxeetako ordezkariek. ESTIEZEIZA


Hirukide, Laskorain eta Orixekoen 'Trabeling jai'-a

TOLOSA Bigarren batxilergoko ikasleek, Udalaren laguntzarekin, festa antolatu dute hilaren 13an 4

IÑAKI CARRETERO
IPUIN KONTALARIA

«Haurrek ikasteko bakarrik irakurtzen dute, ez hunkitzeko»

TOLOSA Ahoz aho jaialdiaren baitan bi saio eskainiko ditu, lehena gaur 18:00etan 3



HITZA

Ikasturte bukaerako bidaia xede

Aisia » Batxilergoko bigarren mailako ikasleek 'Trabeling jai' antolatuta dute etzirako; lortutakoa bidaia ordaintzeko baliatuko dute.

INIGO TERRADILLOS

Batxilergo amaitezian ohitura izaten da ikasle guztiek elkarrekin bidaia bat egitea ospakizun moduan. Badira urte batzuk ohitura hori Tolosako hiru ikastetxeetako ikasleek, hau da, Hirukide, Laskorain eta Orixekoek elkarrekin egiten dutela. Urtean zehar hainbat ekimen antolatu ohi dituzte bidaia antolatu ahal izateko, eta aurten, berrikuntza bezala, festa berezi bat egingo dute. *Trabeling jai* izena jarri diote, afaria eta zuzeneko musika egongo da, eta etzi izango da Zerkausian eta Beotibar pilotalekuan.

Udaleko Gazteria sailaren eskutik iritsi zitzaizen Tolosako Batxilergoko bigarren mailako ikasleei festa berezi bat egiteko proposamena. Gazteek ideia ona zela iruditu aurrera jarraitu zuten, eta antolatzeari ekin zioten. Udalak «ikasleen bidaia ekonomikoagoa izateko helburuz» azpiegiturak, materiala, baliabideak eta antolaketaekin laguntzeko ardura hartu du, eta hori guztia aintzat hartuta,



Etziko jaia antolatzen aritu diren ikasleetako batzuk. E. ZEIZA

ikasleak izan dira *Trabeling jai*-ari forma eman diotenak.

Horretarako, hiru ikastetxeetako ikasleek bilerak egin dituzte Tolosako Kultur Etxean astero astero. Batxilergoko bigarren mailako Laskorain ikastolako Odei Enaolak eta Amaia Aranak, Hirukideko Jon Etxezarretak, Julen Davilak, Sara Villanuevak, Iban Balerdik eta Esti Santiagok eta Orixeko Julen Requejok eta Jon Harrietak osatu dute ikasturte bukaerako bidaia antolatzeko taldea.

Bi zati izango ditu festak, eta pisu handiena Beotibarren 23:00etatik

05:00etara izango den jaiak hartuko du. Era guztietako musikaz gozatzeko aukera izango da, DJ Nekion, Peachy Joke, Inde Kitxen eta Puntzaka DJak eskainiko dutena, hain zuzen. Baina, festa giroan sartzeko Beotibarreko jaia hasi aurretik 16 urtetik (DBH 4) gorakoentzat afaria egingo dute Zerkausian. Beotibarreko festarako txartelak 5 eurotan jarri dituzte salgai ikastetxeetan eta larunbatean bertan ere eskuratu ahaliko dira. 04:00etatik aurrera joaten direnek ez dute sarrikerarik ordaindu beharko. Festa eta afarirako txartelak, berriz, 15

» DATUAK

- **Zer.** *Trabeling jai*.
- **Non eta noiz.** Beotibar pilotalekuan eta Zerkausian, etzi.
- **Helburua.** Batxilergoko bigarren mailako ikasleen ikasturte bukaerako bidaia finantzatzea.
- **Txartelak.** Afaria eta Beotibarreko jaia 15 euro; Beotibarreko jaia 5 euro. Hiru ikastetxeetan salgai edo egunean bertan.

eurotan eros daitezke. Denera 50 ikasle inguru ariko dira lanean, Zerkausian eta Beotibarren.

12 egun Europan zehar

250 lagun inguru joango dira abuztuaren ikasturte amaierako bidaian. Europatik barrena 12 egun igaroko dituzte autobusez, Amsterdam, Viena, Munich, Brujas eta Praga bisitatuz, besteak beste. Ez dute uste etzirako antolatu duten festarekin bidaia osoa ordaindu ahaliko dutenik, «baina bai zati handi bat». Zati hori benetan handia izateko festak harrera ona izatea beharrezkoa dute, eta horregatik gazte guztiak animatzen dituzte parte hartzera. Interneteko gizarte sareak ari dira baliatzen festaren deialdia zabaltzeko, eta orain arte izan duten harrerarekin «gustura» daude, «jende askok adierazi baitu festan parte hartzeko gogoia».

Laburrak

Betis futbol taldearen entrenamendua, bihar

KIROLA » Betis futbol taldeak Tolosan entrenatuko du bihar, 18:00etatik aurrera. Hain zuzen ere, Irungo Real Union taldearen aurka dute hurrengo partida, eta hori prestatzen ariko dira. Entrenamendua Berazubini egingo dute, eta Usabal Kiroldegian ere izango dira instalazioak ikusten.

Merkatu Txiki biko kartel eraman dituzte

GIZARTEA » Amarotz Auzo Elkarteak adierazi dutenez, herenegun gauean Merkatu Txikia itxtean kartelak kanpoan utzi zituzten ahazturik, eta hurrengo egunerako desagertu egin ziren. Bada, kartelak eraman dituenak Kultur Etxera buelta ditzan eskatu dute, «euruntzat esanahi berezia baitute».



Kendu dituzten bi kartelak. HITZA

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRIAOK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosaldeko bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Iurrumendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Paper antzerkian trebatzeko tailerra

Kultura » Apirilaren 6tik 9ra haurrentzako nahiz helduentzako tailerrak izango dira Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.

ERREDAKZIOA

Aste Santurako jarduera berezia antolatu dute Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan, paper antzerkiaren teknika ikasteko tailerra, hain zuzen. Apirilaren 6tik 9ra bitarte izango da, eta gaztetxoek nahiz helduek parte hartu ahaliko dute.

Haurrei zuzenduriko tailerra sei urtetik gorakoentzat izango da. Antzerki txiki bat egingo dute, eta pertsonaiak eraikiko dituzte nahi duten hori kontatzeko eta mani-



Tailerra amaitzen antzezlanaren egingo dute guztiek elkarrekin. HITZA

pluztzen eta eskenaratzen ikasiko dute.

10 orduko ikastaroa izango da. Apirilaren 6tik 9ra 10:30etik 13:00etara. 15-20 ikaslez osaturiko

taldea osatuko dute, eta 15 euro ordaindu beharko dira izena emateko.

Bizitzako zati bat taularatu

Helduei zuzenduriko paper antzerki tailerra apirilaren 6tik 8ra izango da, 16:00etatik 19:00etara. Tailer honetan, parte-hartzaile bakoitzak aukeratutako bizitza zati horretan oinarritutako paper antzerkia egingo du. Paper antzerki txiki bat egiteaz gain, antzezpenerako beharrezko pertsonaiak eraikitzen ikasiko dituzte, teknika, manipulazioa eta eskenaratzea lan-

» DATUAK

- **Ekimena.** Paper antzerki tailerra.
- **Noiz eta non.** Apirilaren 6tik 9ra, Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.
- **Gaztetxoentzako tailerra.** Apirilaren 6tik 9ra, 10:30etik 13:00etara. 10 orduko iraupena. 15 euro.
- **Helduentzako tailerra.** Apirilaren 6tik 8ra, 16:00etatik 19:00etara. 9 orduko iraupena. 25 euro.
- **Antzezlanak.** Apirilaren 9an, 16:00etatik 18:00etara.
- **Izen-ematea.** 943 65 04 14 (Karmele) zenbakira deituta.

duz. Parte-hartzaileak tailerretik paper antzerki bihurtutako bizitza eskema txikiarekin aterako dira, «maite duten horri bizitza zatitxo hori oinarritu ahal izateko». 15 ikasle osaturiko taldea osatu nahi dute, eta bakoitzak 25 euro ordaindu beharko du parte hartzeko.

Haur nahiz helduak elkarrekin

Bi tailerrek bat egingo dute azken saioan. Izan ere, apirilaren 9an, 16:00etatik 18:00etara, antzezlanaren egingo dute ikasitakoa jendaurrean erakutsiz. Generazioen arteko lana izango da, beraz.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria.** Sukaldari, zerbitzari, okin edo gozogile bezala lan egingo nuke. Deitu 662 49 40 78 telefono zenbakira.

■ **Etxeko lanak.** Eskualdeko emakumea goizez etxeko lanak egiteko prest dago. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 600 71 64 76.

«Haurrak hunkitzea da helburua, eta ez soilik entzuten egotea»

ÍÑAKI CARRETERO » Ipuin kontalaria

Kultura » Ahoz aho jaialdiaren baitan, Íñaki Carreterok bi saio eskainiko ditu; lehena gaur 18:00etan izango da.

ESTI EZEIZA

Ahokotasuna oinarri duen jaialdia da Ahoz aho, eta honekin lotutako hainbat ekitaldi izango dira egun hauetan Tolosako auzo ezberdinetan. Gaur, Íñaki Carretero ipuin kontalari arabarraren saioa izango da Amarotz auzoan, 18:00etan. Honez gain, igandean, beste emanaldi bat eskainiko du. Hau, Bonberenean izango da, 11:30ean.

Nolakoak izango dira Tolosan eskainiko dituzun saioak?

Nik beti liburuekin egiten dut lan. Urtean zehar, irakurketa suspertzeko proiektuetan egiten dut lan. Hori dela eta, saio guztietara liburuekin joaten naiz. Gainera, erabereaz kontatzen ditut.

Nondik dator, ipuinak kontatzeko modu berezi hori?

Ni dislexikoa naiz eta arazo handiak ditut irakurtzeko eta idazteko. Horregatik, liburuek nik ulertzen ditudan moduan kontatzen ditut. Irakurtzeko, beti liburuek imajinatu egin behar nituen. Mantsu mantsu irakurtzen nuen eta nire pelikulak sortzen saiatzen nintzen. Orain, nik irakurtzen ditudan ipuin gehienak oso partehartzaileak dira, haurrek ere bere aldetik asko jarri behar dute. Haurrak hunkitzea da nire helburua, eta ez soilik entzuten egotea.

Zer nolako ipuinak kontatzen dituzu?

Ipuin kontalari askok jokoak eta baliabide ezberdinak erabiltzen dituzte beraien saioetan. Nik berriz ipuinak hartzen ditut, askotan liburu trokelatuak erabiltzen ditut, non, zabaltean, gauzak irten diren barrutik. Honela, haurrei erakusten diet nola gozatzen duan ipuinekin. Gero, adinaren arabera, istorio ezberdinak irakurtzen dizkiet. Batzuetan, Euskal Herriko kondairak eta istorioak azaltzen ditut. Bestetik, gauzak ez ditut gehiegi azaltzen, haurrek irudimena ere erabili dezaten. Gehienetan, musikari batek lagunduta egiten ditut saioak, baina ez dut jakiten berak zer nolako musika jarriko duen. Haurrari entzuteko grina eta liburu bat hartzeko grina hori sortzen saiatzen naiz.

Haurrak irakurtzera bultzatzea da zure asmoetako bat.

Horretan egiten dut lan urtean zehar. Normalean, ipuinak kontatzen ditudanean, nire lana horretara bideratzen dut. Ipuin saio batekin ia ezinezkoa da



HITZA

irakurzaletasuna suspertzea, baina modu horretan, hau da, liburuek eramanda, haurrek ikusi dezakete, istorioak hortik irten direla. Honela, erakutsiz liburu batekin eta istorioekin jolastu dezaketela. Azken batean, niretzat hori da irakurtzea, irakurtzen duzun horrekin zure buruan film bat egitea.

Behin baino gehiagotan adierazi duzu irakurtzen dena entzun egin behar dela. Hori ezinbestekoa dela.

Irakurketa kognitibo eta emozionalarekin egiten dut lan. Hemen, Euskal Herrian esaterako, haur guztiek dakite irakurtzen, baina ulertzen? Hori dela eta, nik esaten dudana da, askotan, haurrek badaikitela irakurtzen, baina ez istorioekin gozatzen. Hori dela eta, istorioekin nola gozatzen duan erakusten saiatzen naiz, liburuekin.

Zergatik gertatzen da hori?

Arazoa da ikasteko bakarrik irakurtzen dutela haurrek, eta ez hunkitzeko.

Irakurketa ikastearekin lotzen bada, honek irudimena lantzeko garaian arazoak ekarri ditzake.

Ez dakit irudimena lantzeko arazorik izango dituzten, baina egia da, egun irudimena ia ez dutela erabiltzen. Ez daukate frustraziorik. Estimulazio goiztiar gehiegi dituzte, eta gauza asko, baina ez dute bizipenik. Irakurtzeko eta entzuteko berriz, bizipenak behar dira. Frustratzeko denbora gutxi dute, eta ez dakite. Aspertzeko berriz ez daukate, eta aspertzeko direnean, ez dakite zer egin.

Egun, haurrek, lehen bezain beste irakurtzen al dute?

Irakurri gehiago egiten dute, baina ulertu eta liburuekin gozatu, ez nago ziur. Liburuen lehendabiziko helburua ongi pasatzea da.

Saioetan erabiltako liburuek, ba al dute zerbait komunean?

Nire gustukoak diren ipuinak dira, saioetan kontatzen direnak. *Ñorñoak* ez dira izaten behintzat, ez baitaizkit gustatzen. Bizitzako gauzak agertzea gustuko dut, hau da, edozein haurrei gerta dakiokena. Autolaguntza gidaliburuak ez zaizkit gustatzen. Horregatik, tradiziozko ipuinak irakurtzen ditut askotan, gauzak alda baititzaket hauetan.



Ska doinuak ekarriko ditu bihar Tolosara, Luz de Putas taldeak. HITZA

Rock eta ska doinuak bihar Bonberenean

Musika » Naut, Luz de Putas eta Alamburada taldeak entzuteko aukera izango da 22:30etik aurrera etxe okupatuan.

ERREDAKZIOA

Naut, Luz de Putas eta Alamburada taldeak Bonbereneako eszenatoki gainean izango dira bihar gauean. Ohi bezala 22:30ean hasiko da kontzertua. Naut Hondarribitik datorren taldea da, rock musika eskainiz. Luz de Putas eta Alamburada, berriz, Bidasoa inguruetatik

datoz. Alamburada ere rock musika eskainiko du eta Luz de Putasek ska erritmoak puntu komiko batekin eskainiko dizkigute.

Etzi gauean, musika gehiagoz gozatzeko aukera izango da Bonberenean. Izan ere, bertan izango dira, 22:30etik aurrera, Estricalla eta Freak Kennedys talde zaragozarrak.

Estricallak rock gogorra du oinarri eta Kuraia taldearen ahotsa izan zen Fer Sapo du taldearen buru. Freak Kennedys zaragozarrak berriz, Dead Kennedys-en abestien bertsioak joz animatuko dute gauea.

Oargik irteera antolatu du martxoko zubirako

Kirola » Cervera de Pisuerga inguruko Curavacas eta Espiguete mendiak igoko dituzte asteburuan zehar.

ERREDAKZIOA

Oargi mendi elkarrean irteera antolatu du datorren astebururako. Hilaren 19tik 21era bitartean Curavacas (2.524m) eta Espiguete (2.451m) igoko dituzte.

Ostiralean Tolosatik abiatuko dira Cervera de Pisuergan dagoen

Aterpera. Larunbatean Curavacas igoko dute. 3 ordu inguruko igoeira dela aurreikusten dute eta 1.195 metroko malda dauka, larunbat gaua ere Cerverako aterpean pasako dute. Igandean Espiguete igoko dute. Hiru orduko igoeira eta 1.100 metroko malda du.

Txangora joateko 20 euro arduratu behar dira Euskadiko Kultura Departamentuaren 3035 0028 11 0281141038 kontuan edo elkartearen. Izen-ematea 688 698 642 mugikorrera deituta (19:00etatik aurrera) edo info@oargi.org helbidean egin daiteke.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko komunikabide batek
**Kazetaritzan edota
Euskal Filologian
lizentziatuak
edo ikasleak behar ditu
lan poltsa osatzeko.**

Interesak gertu: 661 67 88 17 informazio@tolosa.com

Etxebizitza libreak eta babes ofizialekoak eraikitzen ari dira

Zizurkil » Babes ofizialeko 33 etxebizitza egingo dituzte eta dagoeneko guztiak esleituta daude. Lehen fase honetan, ia beste horrenbeste libreak izango dira.

ENERITZ MAIZ

Azken urteetan krisi hotsa bolaro badabil ere, eta eraikuntza izan da kaltetu nagusienetako bat, Zizurkilen, etxebizitza berriak egiten ari dira. Herritarren aldetik eskaria handia izan da eta bertan, babes ofizialeko etxebizitzak eta libreak izango direnak eraikiko dituzte. 2009. urte amaieran hasi ziren obrek eta beste urte bat edo gehiago beharko dute bukatzeko.

«Area 13 deitzen diogu lehen zerrategia zegoen lekuan eta bertan ari dira eraikitzen. Lizentzia abuztuan eman zitzaion eta urte bukatu baina lehen libreakin hasi ziren eta orain jada babesekoekin ere ari dira» azaldu digu Maria Angeles Lazkano alkateak.

Etxebizitza batzuk babes ofizialekoak eta besteak, libreak izango dira. Babeseko etxebizitzaren kasuan, «zozketa guztiak eginda daude baina krisi garai honetan, jende askok maileguak lortzeko zailtasunak izan ditu eta atzera egin behar izan dute. Hala ere, ze-



Asteasurako bidearen ondoan ari dira etxebizitza libreak eta babesekoak eraikitzen. E. MAIZ

rrenda oso luzea zen eta eskerrak. Etxebizitza guztiak ordezkoekin beteak ditugu» argitu digu.

33 babes ofizialeko etxeak izango dira eta lehen fase honetan, etxebizitza libreak ere beste horrenbeste egingo dituzte. «Libreak gehiago dira baina saldu ahal edo merkatuaren arabera egingo dira. Hala ere, lehen fase honetan, nahiko ongi ari direla saltzen esan digute» azpimarratu nahi izan du eta «etxebizitzaren behar handia daukagu» gehitu du.

Etxebizitzaren ingurua nola geldituko den galdetzean «gaur egun oraindik harrizkoa den eraikuntza bat dago errepidearen ondoan bai-

na hori desagertu egingo da eta bertan, birbilgune bat egingo da. Nolabait, etxebizitza berri hauetik, Pagamuñoa auzotik eta Asteasutik datozen autoak bideratzeko izango da, jende asko bizi baita» argitu du Lazkanok.

Errepidearen ondoan, babes ofizialekoak direnak izango dira eta hauen atzean etxebizitza libreak. Bi eraikinen artean berriz, plaza guneko publiko bat geratuko da. Bestalde, etxebizitzek, erdisotoa izango dute eta lokal hauek, merkatari-tzara edo zuzendu daitezkeenak izango dira.

Guztia, hau da, lehen fasea, ondorengoak eta baita birbilgunea

ere, ongi joanez gero, lau urteren buruan bukatuta egon beharko litzatekeela uste du Maria Angeles Lazkanok.

Etxebizitza tasatuen proiektu berriekin lanean

Gaske asko etxebizitzarik gabe geratu da baina Udalak, etxebizitza tasatuak egiteko beste proiektu bat esku artean darabil eta epe laburrean aurrera eramanez nahi du.

«Area 10a edo Pasuseneko plazako proiektuarekin ari gara lanean. Foru Aldundiaren lurra dira eta beraien bidez, Etorlurrek etxebizitzak egin behar zituen baina Etorlurrek ez dela bideragarria

ikusi du eta berriro ere Foru Aldundiari bideratu dizkio lurra» azaldu digu.

Orain, Foru Aldundiak, nolabait Udalarari eman dio aukera hori. «Orain dela 8-10 urte, Udalak, interes hori Foru Aldundiari agertu zion. Plaza berritu eta eraikin zahar bat bota beharko litzateke eta kasu honetan eraikin bakarrean etxebizitza tasatuak egingo lirateke. Era berean, plazari txukundu bat emango litzaioke».

Zizurkilgo Udalak, Etorlurrek ez bezala, bideragarri egin daitezkeela uste du eta «historia honekin, zazpi urte pasa ditugu atzera eta aurrera eta lehen bailehen mugitu nahi dugu, zeren badakigu jendea zain dagoela». Berrogeiren bat etxebizitza tasatu izango dituen eremuarekin lanean ari dira eta bideratzen doazen neurrian, hemendik bi edo hiru hilabetera gauzak argiago edukiko dituztela uste du herriko alkateak.

Zapateroren bigarren laguntza berriz, Zizurkil Goian urarekin dituzten arazoak konpontzeko baliatuko dute. «Euri pixka bat egiten duenean, bi edo hiru gunetan urak hartzen du eremua eta baserri batzuetara ere ura sartzen da. Arazo hori dela eta, aztertzen hasi eta irtenbide bat bilatu nahi izan dugu. Baina aztertzen hasi garenean uste baino arazo handiagoarekin topatu gara, ur asko biltzen da, harrituta geratu gara» dio Lazkanok.

Proiektua eginga dute baina hiru fasetan banatu beharrean aurkitu dira. Proiektua, euri urak eta saneamenduko urak ezberdintzea izango da eta Aintzibar errekarra bideratuko dituzte. Lehen fasea Zapateroren laguntzarekin egingo dute eta beste faseak egin ahal izateko, Zizurkilgo Udala finantziazio lortu ahal izateko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri da.



Zubimusun obretan ari dira

VILLABONA-ZIZURKIL » Amasa-Villabonako Udala eta Zizurkilgo Udala, Zubimusuko obretan elkarlanean ari dira. Denbora bat bada, ibilgailuak Zizurkildik Villabonara norabidean bakarrik pasa daitezkeela eta oinezkoentzako pasabidea dagoela baina txukundu beharrean aurkitzen zen. Errepidea, hau da, Zubimusu

Diputazioarena da baina konponetak egiteko dirurik ez dutela adierazi zieten bi Udalei. Hauek beraien udaletxeko langileekin konpontzea adostu dute. Aspertean hasi ziren lanean eta eguraldiak laguntzen badu, hiru astetan lanak bukatzea espero dute eta berriz ere, ibilgailuentzat irekita egongo litzateke. E. MAIZ

Loiolako negoziazio prozesuaren kronika

Prozesuaren kronika zehatza egin du Imanol Murua Uri kazetariak *Loiolako hegiak* liburuan, orain arte inor gubirik ezagutzen zituen datuak argituz.

Loiolako negoziazioaren protagonista izandako Jesus Egiguren, Iñigo Urkullu eta Arnaldo Otegiaren testigantzak.

eskaintza berezia
BERRIAko irakurle eta harpidedunentzat

15€

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu
www.berria.info
harpidetza@berria.info
943-30 43 45

Aukera ezazu,
BIZI EUSKARAZ
berria



Anoetan eta Ibarran eskainiko dute bertsoxongiloek ikuskizuna. HITZA

Bertsoak, antzerkia eta txotxongiloak ikuskizun berean

Kultura » Bertsoxongiloek haurrei hitzekin ere jolas daitekeela erakutsi nahi diete; Anoetan eta Ibarran eskainiko dute emanaldia.

ERREDAKZIOA

Iritsi da jada *Hitzen Lapurra* bertsoxongiloen jarraipena, 3, 2, zast... egizu jolas! izenekoak.

Aurreko emanaldian bezalaxe oraingoan ere bertsoak, koplak, txotxongiloak eta antzerkia uzartzen dituzte. Gure eskualdeko lehen saioa Anoetan eskainiko dute hilaren 29an, baina Ibarran ere izango dira apirilaren 9an.

Bertsoxongiloen arduradunen hitzetan, lan berriaren abiapuntua

galdera hauek dira: «Zertara jolasten dira gure haurrak kalean? Zertara baliabiderik eskaintzen ez bazaien?».

«Lehengo harrapaketak, txabola egiteak... bukatu dira. Gaur, zertan jolastu ezin asmatuak ibiliko dira Ander, Ximon eta Lide. Hala-ko batean baina, bat batean, jeinu bat irtetzen da eta jolasean jarriko ditu. A ze zortea hirukote hone-na!», gaineratu dute.

Irudimena lantzen laguntzeko emanaldia

Euren helburua emanaldietara gerturatzeko diren haurrek hitzekin jolasteko aukera ere badagoela barneratzea da. «Koplak asmatuz, hitzak bilatuz, irudimena lantuz...», argitu dute.



Antoine Griezman saritu dute

LEABURU-TXARAMA » Mahala enpresak Realeko harrobiko jokalaririk saritzen jarraitzen du, bertako futbol ondareari «errekonozimendua emateko» eta «emaizta onak lortzen» laguntzeko. Oraingoan Antoine Griezmanek jaso du Mahala baserriko produktuez osatutako saskia Numanciaren aurka sartu zuen golarengatik. HITZA

70 kanalik onenak, hilean 14€ ordainduta.

Orain, gozatu zinema onenak, zuzeneko futbolak, zure telesail gustukoenez, dokumentalez, haurrentzako kanalez eta askoz gauza gehiagoz, zuk uste baino gutxiago ordainduta.

Beste telebista bat merezi duzu.

euskaltel zuretzat

zuntzOptikoa Deitu 1717 telefono-zendakina edo zator Euzkaltelen saltokina.

TB Digitala 10 hilean 14,21 €-tik aurrera Zuntz biderko 12 M-ko Datas dute; berenentzati eta hilean 11 €-tik aurrera Zuntz biderko 2 M-ko Datas dute; berenentzati. TB Digitala 10ren ordainduta kosta: 30 € e. 5. bidezko diruakoma aplikatuko da Zuntz biderko 2 M-ko Datasen edo bertik gurekin erabiltzen duen TB Digitala 10 zerbitzuaren koston, berriz 2 produktuen hornitzailearen kosta gero. Deskodetzailea eta dago sartuta. Zeharkako erabilera (RAT) 5. 11 er dago sartuta.

Berria Txapelketako final laurdenak jokatuko dituzte asteburuan eskualdekoek

Pilota » Bihar Aurrera-Saiaz eta Zazpi Itturri elkarren aurka ariko dira; igandean Aurrerak Markina izango du aurkari.

IMANOL GARCIA

Berria Txapelketa final laurdentara iritsi da. Asteburu honetan jokatuko dira partidak eta eskualde- hiru parte-hartzaile iritsi dira puntu honetaraino. Horietako bik, Tolosaldeko Aurrera-Saiazek eta Amezketako Zazpi-Itturrik, elkarren aurka jokatu dute bihar, 20:00etan hasita, Alegiako frontoian. Aurrerakoek Markinaren aurka jokatu dute igandean, 10:30ean, Amazabalen.

Zazpi-Itturritik kadeteetan Eneko Nazabal eta Iñaki Artola ariko dira, jubeniletan Joseba Gallurralde eta Erik Jaka, eta nagusietan Iraitx Olaetxea eta Jokin Leunda. Aurrera-Saiaz elkartetik kadeteetan Eneko Labaka eta Jon Elustondo ariko dira, jubeniletan Xabier Urbietia eta Txomin Zinku-

negi, eta nagusietan Ugaitz Renobales eta Eneko Galarraga.

Xalton Zabala Zazpi-Itturriko arduradunak azaltzen duenez, «kadeteetan irabazteko aukera dugu. Jubeniletan oso zaila izango dugu irabaztea. Eta nagusietan Renobales-Galarragak jokatzeko badeute ezinezkoa izango da irabaztea. Ez dut uste oraingo kanporaketa pasatzerik izango dugunik».

Luis Galarraga Aurrera-Saiazeko arduradunak dioenez, «haiek kadeteetan bikote ona dute eta teoriarik aukera gehiago dituzte irabazteko. Jubeniletan normalki gure bikoteak irabaziko du. Nagusietan ere normalki gure bikoteak irabaziko luke. Baina partidak jokatu egin behar dira».

Lehia Alegian jokatu dute eta pilotari alegiarrak daude bai eskola batean bai bestean. Elorri frontoira, beraz, jende asko joango dela espero dute.

Leitzarrak «aukerekim»

Leitzako Aurrera Pilota Eskolakoek norgehiagoka irabazteko «aukerak» dituztela diote. «Gure au-

kerak aprobetxatzen baditugu finalerdietara pasatzeko aukerak izango ditugu», zehaztu du Pakito Sagastibeltza Aurrerako arduradunetako batek. Kadete mailan, Anartz Olanok eta Mikel Hernandezenak jokatu dute, jubeniletan Xabier eta Jon Jaunarena anaiek, eta nagusietan Iñaki Esain eta Mikel Iriarte ariko dira. Sagastibeltzak azaltzen duenez, «kadeteetan irabazteko esperantza handiak ditugu. Jubeniletan bikote oso bizkorra dute markinarrek eta hor lan asko egitea tokatuko zaie Jaunarena anaiei. Beraz, helduen partidak izango da erabakigarria eta hor besteen bikotea nik uste gutxi- xeago delar».

Aurrerak 500 euro ordaindu ditu lehia Amazabalen jokatzeko. «Ez gabiltza diruz ondo, baina herriaren alde horrelakoak egin behar dira. Ea jendeak erantzuten duen», dio Sagastibeltzak, «eta laguntzen dien pilotarietara norgehiagoka pasatzen». Leitzarrek irabaziko gero, Aurrera-Saiaz eta Zazpi-Itturriren arteko irabazlearen aurka jokatu dute.

Herritarren animoen artean itzuliko da Barriola

Leitza » Pilotariak bihar egingo du berragerpena Amazabalen, herriko Aurrera Pilota Eskolak antolatutako jaialdian.

I. GARCIA

Hamaika hilabete jokatu gabe egon ondoren, Abel Barriolak bere herriko frontoian egingo du berragerpena, bihar 22:00etan. Pilotari leitzaarra ilusioz dago, jaialdiaren antolatzaile lanetan ari den herriko Aurrera Pilota Eskola bezala.

Hasieran Aurrerakoek ez zuten pentsatzen Barriolaren partida antolatzea. Izan ere, Aspe enpresak horrela erabakita, berragerpenak Bigarren Mailako Txapelketako partida batekin batera izan behar zuten. «Leitzako frontoia ezin du Txapelketako partidarik hartu, motzegia baita», azaltzen du Pakito Sagastibeltzak. «Orduan partida antolatzearen ideia ezinezkoa zela pentsatzen genuen».

Baina Aurrerakoak bueltak ematen hasi ziren kontuari, Aspe-ekin hitz egin zuten eta Txapelketako partida, finalerdia zenez, beste frontoi batean jokatzetik bazegoen eskatu zuten. «Azkenean

lortu genuen Barriolaren partida Amazabalera ekartzea», dio Sagastibeltzak.

Aurreratik azaltzen dutenez, «Abel ilusionatuta dago herrian izango delako berragerpena eta hori ikusita eta herriarentzako ere polita izan daitekeela ikusita, jaialdia antolatzea erabaki genuen». Sagastibeltzak azaltzen duenez, «ongi» ikusten du Barriola entrenatzen. «Garai batean ikusten genion puntu hartan ez dago, kantxan kilometro asko egitea falta zaiolako, baina alde horretatik ez dago beldurrik. Bere lanerako go-goa eta ilusioa ikusita, badakigu denbora gutxian fisikoki lehen bezala ariko dela».

Jaialdia 22:00etan hasiko da eta bi partida ikusteko aukera izango da. Lehenengoan Berasaluze IX.a-Larrinaga eta Apezetxea-Ladis Galartza ariko dira. Bigarrenengoan Idoate-Eulate eta Retegi Bi-Barriola lehiatuko dira. Sarrerak 20 euro balio ditu eta erreserba egin nahi duenak 619 606 265 telefono zenbakira deitu dezake. Aurrerakoek azaldu dutenez, oraindik sarrerak badaude, baina interesatuta daudenak agudo ibili beharko dute lekurik gabe gelditu nahi ez badute biharko jaialdi berezian.

AAMk Guardia Zibilaren presentzia salatu du

Amezketak » Astelehenean egun guztian zehar herriaren guardia zibilak izan zirela eta herritarrek identifikatu zituztela azaldu du.

ERREDAKZIOA

Amezketako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Guardia Zibila astelehenean herrian ibili zela eta herritar batzuk identifikatu zituztela salatu du. «Egun guztian zehar herrian bertan eta inguruetan ibili ziren. Goizean oinez zebiltzan he-

rritar batzuk identifikatu zituzten, kalean», zehaztu dute AAMtik.

Euskal Herriak «bizi duen salbuespen egoeraren ondorio da indar okupatzaileak herrira armez sartu eta jendea nahi erara tratatzea», azaldu du AAMk.

«Konponbide demokratiko baten bidean eta ikusirik indar okupatzaile horiek euskaldunekiko dituzten jarrerak, ez dugu herrian beraien presentziarik nahi, ez eta behar ere, horregatik Euskal Herriaren soberan daudela ozen esan nahi diegu», gaineratu du ohar batean AAMk.



Eroritako zuhaitzak aprobetxatzeko

ALEGIA » Udaletik azaldu dutenez, orain gutxi izan den haizetek bi zuhaitz bota ditu Langaurren. Norbait zuhaitzak aprobetxatzeko interesatuta egonez gero

639 34 48 09 telefono zenbakira deitu dezake. Hilaren 16ean zozketa egingo da udaletxean, 19:00etan, izena eman dutenen artean. HITZA

Hilberria

JOXERAMON TOLOSA DORRONSORO



Langurreko zuhaitzek hitz egingo balute Aupa Toloxa! esango lukete

Larunbatean, martxoaren 13an, omenalditxo bat eskainiko diete senide eta lagunek Langaurren, eguerdiko 12:00etan.

Intxurre Kirol eta Kultur Elkarte



ALEGIA
2010eko
martxoaren 11

JOSE RAMON TOLOSA DORRONSORO



Jauna (Potto)

Atzo hil zen, 64 urte zituela

Datorren larunbatean eguerdiko 12:00etan Langurreko zelaietan omenaldi xume bat egingo zaio.

Senide eta lagun partetik



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurenak-eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel. 943-65 56 95



Alegiako plazan elkarretaratzea egin zuten atzo, lan istripuz hildako azken langilearen heriotza salatzeko. IMANOL GARCIA

Errotalde Fabrensan lan istripuz hildako langilearen heriotza salatu dute

Alegia » Martxoaren 5ean hil zen 61 urteko langilea industrigunean «altueratik erorita»; LABek deituta 40 lagun elkartu ziren atzo.

ERREDAKZIOA

LAB sindikatuak elkarretaratzea egin zuen atzo Alegiako plazan. Bertan 40 lagun inguru elkartu ziren lan istripuz hildako azken langilearen heriotza salatzeko. Nafarroan, Araban, Bizkaian eta Gipuz-

koan aurten 16 langile hil dira lan istripuen ondorioz, eta Lapurdin, Behe Nafarroan eta Xiberoan hiru, sindikatu abertzaleak zabalduko datuen arabera.

J.L.G.C. martxoaren 5ean hil zen «altueratik erorita». LABek jakinarazi duenez 61 urte zituen lasartearrak eta Alegiako Errotalde Fabrensa industrigunean eduki zuen lan istripua. «Langileak Maquinaria Tuvasa SL enpresak azpikontratatu Montajes Industriales Danaka-n egiten zuen lan».

LABen esanetan «prekaritateak

hil egiten du eta zorritarrez beste behin ere ikusi ahal izan dugu lan baldintza prekarioak direla, lan istripu hauen faktore eta eragileak».

Administrazio eta instituzio publikoetara ere zuzendu zaie sindikatu abertzalea: «Hauek, interes ekonomiko eta *bake sozial* antzua aintzakotzat hartuta, patronalaren interesen menpe jarduten dute, interes horiek langileen osasunaren eta biziazen gainetik jarriz, beharrezko diren neurri prebentiboak betetzen direla ziurtatu beharrean».

Gutunak

Guztiaren eta denen beharra dugu Ttipi-tpapa'n, bai noski!

Ba bai... Batzuk diruaren beharra dugu bizirauteko (ez aberasteko). Halakoxe mixerableak gara. Ezkontza gehigarrien beharra dugu, moda gehigarriena, kirol, besta, feria eta eguberrietako gehigarriena, eskualdeko Telefono Gidarena.

Truñeko jauntxoek banatutako diru apurren beharra genuen *Ttipi-tpapa* telebistan hameka urtez ahalik eta lan txukunena egiteko. Jakina, langile gehienek bezala, merezi baino soldata tikiagoren eta lan-ordu gehiagoren truke. Nahi baino errepikapen gehiago eman behar izaten genituen, baliabideek ez zutelako gehiagorako ematen. Baina baten batek soluzio magikoa topatu du: telebista duinago baten alde horrokatu beharrean, edo hori soberaxko eskatzea bada, telebista katez aldatu edo itzali beharrean (aspergarria behar du izan publikitate bertzirik ez duen kate batean hoge errepikapen ikusten egotea), Jauntxo-ieskerrak eman *Ttipi-tpapa* Tele-

bista dirulaguntza ukatuz itxiarazi zutelako eta langileak, esplotazio-tik askatuz, langabezira bidali zituztelako. Zein euskara aholkulari bikaina galdu duen Sanz jaunak!

Eta aldikariaz ere zer erran. 30 urte dituen aldikaritan agertzen diren berriak ez omen dira publikitatearen apaingarri bertzerik. Eta berriemaileak? Beharrik bakarren batek begiak ireki dizkien! Boron-datetsuak bai, baina tonto hutsak! Hamabostero berriak bilatzen jauntxo bat aberasteko eta albistek publikitate azpian, hor nonbait, ezin bilatuz ibiltzeko erabiliak. Horien beharra ere badugu. Baita hamabortzero publikitate sartzearabakitzaren denda, ostatu, jatetxe, autonomo eta gainerakoena ere. Horien propaganda behar dugu, ez bakarren batek bertze tokitan (debalde?) egiten digunarena.

Izan ere, beharrik debalde den *Ttipi-tpapa*, bertzenaz, *de qué?* Bortzirietan eta bertze zenbait herrian debalde hartzearen arazoia Mankomunitate eta Herriko Etxeen dirulaguntza da eta horien beharra ere badugu. Baina

udalek osorik ordaintzen ez duten herrietako harpidedunak edo eskualdetik kanpokoak, gezurra badirudi ere, urteko saria ordaintzeko prest daude publikitatea bertzerik ez duen aldikaria etxean hartzeko. 6.000 harpidedun ergel. Eta horien beharra ere badugu. Inori ez baitaio *Ttipi-tpapa* harrarazten. Izen-abizenak, helbidea eta telefonoa emanez (ordaindu behar dutenek bankuko datuak ere) deitu edo idatzi behar da eta eskatu. Hainbertze publikitatekin aspertu eta hartu nahi ez duenak erraza du, baja eman eta kitto! Baina denen beharra dugu, bizi-rauteko eta, gure apaltasunean eta ttitikasunean, ahalik eta aldikari txukunena eskaintzeko.

Eta iruditzen zaigu euskarari mesede egiten diola *Ttipi-tpapak* ere. Ezinbertzekoa ez da inor, baina hainbat etxetan hamabortzero sartzen den euskarazko idatzi bakarra *Ttipi-tpapa* da. Eta horri eutsi nahi diogu, euskararen alde, bai noski, euskararen alde.

Aitor Arotzena. *Ttipi-tpapa* hamabostekariko zuzendaria eta telebistako langile ohia.

Gaztelun ongietorria egin diote Goikoetxeari

ERREDAKZIOA

Pasa den ostiralean, martxoaren 5ean, Gazteluko Udaleko kultur batzordeak ongietorri kume bat eskaini zion Jon Goikoetxeari, *Boli-ri*.

Mendizaleak martxan zuen proiektua, *Zazpi tontor*, *Zazpi kontinente*, urtearen hasieran amaitu zuen, Aconcagua-ko gailurra zapaldu zuenean.

Erroizpe-azpiko kirol eta kultur

elkartean 15 bat lagun bildu ziren ongietorrian. Bertan lehenik, afaria burutu zuten eta ondoren, Aconcagua-ko diapositiba emandria eskaini zuen Jon Goikoe-txeak.

Antolatzaileak eta parte hartzaileak «gustura» agertu ziren ekitaldiarekin eta *Zazpi tontor*, *Zazpi kontinente* proiektuaren amaiera edo gauzatzea «giro ederrean» ospatu zutela azaldu dute.

TXOTX

Rezola	Tel.: 943 556 637	Astigarraga
Ipirioa baserria • Soralde Zaharra • www.rezolasagardologia.com		
Oialume Zar	Tel.: 943 552 938	Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)		
Akelenea	Tel.: 943 333 333	Astigarraga
Oialume bidea 57 • www.akelenea.com		
Gurutzeta	Tel.: 943 552 242	Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergoibetetik) • www.gurutzeta.com		
Lizeaga	Tel.: 943 468 290	Astigarraga
Gartziategi baserria, Martxene postakaldea, 139		
Mina	Tel.: 943 555 220	Astigarraga
Txerrikieta pasealekua		
Gartziategi	Tel.: 943 469 674	Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5,6km. • www.gartziategi.com		
Elutxeta	Tel.: 943 556 981	Urmieta
Ostaraun auzoa, 34 • Elutxeta baserria		
Larre Gain	Tel.: 943 555 846 - 616 287 867	Hernani
Larre-Gain baserria, Ereflor auzoa		
Otsua-enea	Tel.: 943 556 894	Hernani
Ostiraga auzoa		
Iparragirre	Tel.: 943 550 328	Hernani
Ostiraga auzoa, 10 • www.iparragirre.com		
Urdaira	Tel.: 943 372 691	Agnaga-Urtebil
Urdaira baserria		
Arratzain	Tel.: 943 366 663	Arratzain zahar baserria Urdabil
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com		
Urbartarte	Tel.: 943 580 119	Ateaun
Ergoiena auzoa		
Ohiarte	Tel.: 943 501 013	Zerain
Ohiarte baserria		
Isastegi	Tel.: 943 652 964	Tolosa
Aldaba Txiki auzoa • www.isastegi.com • isastegi@isastegi.com		
Begiristain	Tel.: 943 652 837	Izarategieta
Izarroz baserria		
Zabala	Tel.: 943 690 774	Adena
Garagarra baserria (Goberu auzoa) • www.zabala.com • info@zabala.com		
Sarasola	Tel.: 943 690 283	Asteasu
Behalora auzoa		
Ola	Tel.: 943 623 130	Iruan
Mizka auzoa, 102		
Lindurrenborda	Tel.: 948 637 212	Lesaka
Nabaz auzoa, 8		

DIEZ Autobusak

Autobusak eta ibilgailuak zerbitzu berea
Mota eta zerbitzu berea
Guztiz, autobusak, ibilgailuak, errepideak.
Munduko helia, 24 | Tel.: 943 28 84 16 | Fax: 943 27 11 37 / 2012 DONOSTIA
Posta elektronikoa: malola@autocaresdiez.net



6°
2°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	8°
HOTZENA	5°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Tailerra

■ **Altzo.** Nerea Sancho psikologo eta sexologoak *Bost zentzumenen indar erotikoa* tailerra eskainiko du gaur udaletxean 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43.112.

» TELEBISTA

28 Kanala

08:30. Zahar-berri. **09:00.** Muka-Muka. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Baztango bandera. **10:30.** On ein! **11:00.** Planik bai. **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** Kultur zulo. **12:30.** Wazemank. **13:15.** Klipak. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Baztango bandera. **14:30.** On ein! **15:00.** Planik bai. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** Kultur zulo. **16:30.** Wazemank. **17:15.** Klipak. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Gipuzkoa kultura. **18:30.** EH Lau Haizetara. **19:00.** Erlorklip. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Eskuokin.
(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduro errepikatuko dute).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



«Primerako» eguna Piraten Etxean

VILLABONA-ZIZURKIL ■ Iragan ostegunean eta ostiralean, Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako LH2. mailako ikasleak Pasaiaiko Piraten Etxean izan ziren. Ostegunean, iritsi bezain laster, motxilak eta lo zakuak bertan utzi ondoren etxea eta bere inguruneak ezagutu zituzten. Arra-

tsaldean, itsasontzian ibili ziren Pasaiaiko badian zehar. Hurrengo egunean, ostiralean, herrian zehar *Altxoraren bila* jolasa egin zutelara ere argitu dute ikastolako arduradunek. «Primeran pasa zuten denek eta poz-pozik itzuli ziren Piraten Etxetik», gaineratu dute. HITZA

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K.:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: